

"EUSKAL-ERRIA"-REN ZUZENDARI JAUNARI.



Biotz guztitik onesbedatzen dedan On Antonio Arzác jauna:

Berorrek biraldu nai izan dizkidan EUSKAL-ERRIA-ren liburukoak, gogoz ta pozik artu ditut; pozik aundiena emango didala Berorrek, euskeraz jarritako edo euskarari begiratzen dion zerbaitcho bidaltzen didan guzietan; ez bedi zalanzan egon. Nere jayotzaz Euskalduna ez izan arren, naiz Euskalduna biotzez, eta egunetik egunera euskaldunagotzen ari naiz. Nere erritik erbestetuta, naigabe ta samiñtasun aundien artean arkitzen nintzanean, Ama Euskerak bere biotz biguñ eta beraa eta bere besoak zabaldu zizkidanetik, eta beraganatu ninduenetik, nere erria bezela nuen Ama Euskera. Bai, guziz asko maitatu dek Euskal-erria, eta ikusirik arako Jainkoaren aunditasuna agertzen eta kantatzen duten mendi altu oriek, eta gariz, artoz, sagarrez eta lorez beteak dauden soro eta zelaiak, eta batez ere Euskaldunak dauzkaten fede ta erlijiozko asiera ta sustrai ondokoyak, deadar egin bear det: «Ona, emen egotea gauz on eta gozoa da.= *Bonum est nos hic esse.*» Lenengotik, eta onera etorri nintzanetik maite nuen izkuntz guzien artian zar eta ederren bat dan Euskera, Jainko ber-berak lenengo gizonaren biotzean išuritako izkuntza, arrotzak *izkuntz illezkor eta betikoa* izendatzen dutena, zorigaitzez Euskaldun askik arduragabetutako Euskal-izkuntza. ¡A! nigan balego, zéiñ gogoz alegiña egingo nuken izkuntz au bere obitik atera eta dagokion goi eta jarlekuan Euskaldunen artean ipintzeko! Zenbat ikasi eta ezagutuago izaten dan Euskal-izkuntza, ainbat euskaldunagotuko dira Euskaldunak, beren anziñako gurasoak bezela ainbat azkar eta leyalagoak izango dira, eta ainbat eta geiago beren itz eta lanetan-gure Jaungoikoa onratuko dute. Betoz bada, eta geitu bitez onelako Euskaldun egiazkoak, Jesu-Kristo gure Jauna egunetik egunera goratu eta alabatuagoa izan dediñ.

Barka bizait, Zuzendari jauna, Ama Euskeraganako ongina eta makurtasuna dala bide, eskutitz au luziegitu dedala, eta artu bitza nere Berorrenganako begiramentu oso osoak, gelditzen naizala, biotz guztitik, Berorren serbitzari, adiskide ta Euskerazalea

PIO MARÍA MORTARA.

Oñatiñ, 1888-ko Mayatzaren 21-ean.

LAS FLORES DE MAYO.

Nunca lo olvidaré. ¡Qué hermosa mañana de Mayo! El sol ligeramente velado, tibio el ambiente, verde el suelo, los pájaros cantando en sus nidos, dándoles el calor que los transforma, naturaleza en evolución á nueva vida. Todo resplandece y se conmueve en la estación de las flores. Este mes puede llamarse la sonrisa del año.

Un grupo de niñas, vistosamente ataviadas, venian del jardín de «La Rosa» en dirección á la capilla de un colegio situado en la calle de Goya. Sombrerillos de paja, adornados con cintas de diversos colores, servian de aureola á aquellas lindas cabezas, en cuyos rostros encendidos brillaba la inocencia. Todas ostentaban orgullosas hermosos ramos de flores para ofrecerlas á la Virgen, y corrian disputándose el derecho de ser la primera en llevar la ofrenda. Sus madres las seguian á corta distancia. Tanta luz y tanta vida oprimieron mi corazón. Mayo era cuando sentí el pesar que llevaré en el alma mientras aliente.

¡Pobres criaturas! pensé al ver pasar por mi lado aquel torbellino de ángeles y flores. Os espera una pena que apagará las mayores alegrías. ¡Quiera Dios que no veais morir á vuestras madres!

A impulsos del egoísmo, aparté los ojos de la felicidad para fijarlos en la desgracia. Una anciana de noble aspecto, que exhaló mis tristes recuerdos, andaba con lentitud apoyándose en el hombro de su nieta, preciosa niña de ocho á nueve años. Ambas, humildemente vestidas, tenian por galas: la primera, natural distincion, y la segunda, el azul del cielo en los ojos y los rayos del sol en los cabellos.